

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak bere gain hartuko du osotara estatuak nekazaritza-aseguruen sistemari egiten dion ekarpenen jaitsiera

Gobernuak 3.5 milioi euro zuzenduko ditu helburu horretara eta, 2015ean legegintzaldiari ekin zitzaionetik, %84 igoko da gastua

Astelehena, 2018.eko urtarrilak 8

[Nafarroak bere gain hartuko du osotara estatuak nekazaritza-aseguruen sistemari egiten dion ekarpenen jaitsiera](#). Horretarako, 3.5 milioi euro zuzenduko ditu Gobernuak helburu horretara eta, 2015ean legegintzaldiari ekin zitzaionetik, %84 igoko da gastua. Hala, ekidin egingo da nekazari eta abeltzainek garestitzei aurre egin behar izana, zeinak, kasu batzuetan, polizen kontratazioaren kostuaren %33 izatera iristen diren.



Elizalde kontseilaria eta Machetti, hitzarmena sinatzen.

Nafarroako Gobernuak nekazaritza-finantziatorako foru-dekretua aldatu du gaur, nekazaritza-aseguruei ematen dizkien diru-laguntza zuzenei laguntza-izaera emateko. Hots, krisia baino lehen aplikatzen zen sistema da berreskuratzen dena, sektorearen baitako erakundeek aldarrikatzen zuten gisa. Gogora ekarri behar 2013an aldatu egin zela laguntza horien ematea eta ordainketa, eta poliza sinatu eta hurrengo urtean ordaintzera pasa zirela. Ondorioz, nekazariak, kostu horri aurre egin behar izaten kontratazioa gauzatzeko momentuan.

Aseguru bat sinatzen duten nekazaritza-sektoreko profesionalak poliza formalizatzen duten momentuan bertan jasoko dute automatikoki Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza osoa. Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilari den Isabel Elizalde eta Agroseguro (Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de los Seguros Agrarios Combinados) taldeko presidente den Ignacio Machetti gaur goizean sinatu dute elkarlanerako hitzarmena, Foru Komunitatean nekazaritza-asegurua sustatzeko; hitzarmen horren bitartez Nafarroako Gobernuaren laguntzaren %100a kontratazioaren unean jaso ahal izango dute nekazari eta abeltzainek.

Ekitaldian, gainera, Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko zuzendari nagusia den Ignacio Gilek eta Agroseguro

taldeko zuzendari nagusi den Inmaculada Poveda hartu dute parte.

Horrez gain, eta urte honetarako onartu diren hobekuntzen artean, bere izaera hedagarria berreskuratuko du aseguruaren partidak, poliza guztiei erantzuteko aukera emango duena.

Hitzarmena sinatzeko ekitaldia gaur goizean bertan izan da Nafarroako Jauregian, eta Isabel Elizalde kontseilariak esan bezala, "bikoiztu egin dugu partida eta handiagotu ere egin ahal izango da; gainera, laguntza zuzeneko izaera eman diogu, burokraziaren sinplifikazioaren alde eginez. Gobernuak landa-eremua babesteko oinarritzkoak eta funtsezkoak diren erremintekin duen konpromisoa erakusten dute hiru aldaketa horiek, izan ere, klima-aldaketaren eragin gero eta handiagoa jasan beharko duen agertoki batean diru-sarrerak egonkortzearen alde egiten da modu erabakigarrian".

Agroseguro taldearen presidente den Ignacio Machettik bereziki eskertu du "Departamentuak eta Nafarroako

Gobernuak egiten duen esfortzua, zeinaren bitartez, azken urteetan helburu horretara zuzendutako aurrekontua igotzeaz gain, nekazari eta abeltzainei kontratazioaren unean bertan ematen zaien diru-laguntza osoa jasotzeko aukera hitzarmen honen sinaduraren ondorioz; hala, murriztu egiten da ordaindu beharreko zenbatekoa eta, gainera, ondorengo tramiteak saihesteko aukera ematen die". Machettik gehitu duenez, gainera, "erabakigarria izango da hala behar duen eta hala erakutsi duen Komunitate baten aseguruia sustatzeko, bereziki nabarmena suertatzen dena aurten, urte klimatologiko okerrenetakoa izan den 2017aren ondoren –lehorte eta izozteengatik batez ere-; ondorioz, ezbehar-kopurua era handiagotu egin da, nazio mailan ia 750 milioi eurotakoa izatera iritsi dena, horietatik 23 milioi Nafarroari dagozkiorarik".

Hitzarmena sinatu ondoren, polizen harpidetza babesteko duen deialdi bakarra argitaratuko da datorren urtarrilaren 12an, ostiralez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

4.000 onuradun inguru

Nafarroan 4.000 nekazari eta abeltzain profesional dira gutxi gorabehera nekazaritza-aseguruen kontratazio-kostuetarako diru-laguntzak jasotzen dituztenak

2017an 201.000 hektarea, 30.000 m² negutegi eta ia 1.800.000 abelburu izan dira bizi-aseguruetarako aseguratu direnak. Ustiategietan hildako animalien ateratze eta suntsitzean 7 milioi abelburutik gora aseguratu dira. Guztira 423 milioi eurotakoa da ekitaldi honetan aseguratu den kapitala.

Aseguruaren kontratazioa egonkorra da oso. 2013-2017 epean zehar aseguraturako batez besteko produkzioa 1,37 milioi tona inguruan dago, eta 408 milioi eurotakoa da batez beste aseguraturako kapitala.



Ezkerretik eskuinera: Gil, Elizalde kontseilaria, Machetti eta Poveda.